

Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

ADMINISTRAZIO ETA EKONOMIA BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA PROZEDURA IREKI BIDEZ N-I (Ordiziako hego lotunea) ETA GI-4491 ERREPIDEAK LOTZEN DUEN AGIRREBIDEA HOBETZEKO 1. PROIEKTUA ALDATUA OBRAK KONTRATATZEKO

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuaren xedea hau da: N-I (Ordiziako hego lotunea) eta GI-4491 Errepideak lotzen duen Agirrebidea hobetzeko 1. Proiektu Aldatuaren obrak, eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorri egingo da. Proiektua SESTRA Ingenieria y Arquitectura-k egindu. Baldintza-agiri honek kontratu balioa du.

2. OBRAK BURUTZEKO EPEA.

Kontratu honen xede diren obrak burutzeko epea hau da: 4 hilabete.

Homidura ez bada aipatutako epe horretan ematen, kontratistak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

3. KONTRATUAREN AURREKONTUA

Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua: 476.241,90 € gehi 100.010,80 €, BEZari dagozkionak. Lizitatuzaileek aurrekontua hobetu dezakete.


Kontratuaren prezioaren barruan banakako prezioen zerrenda egongo da. Izan ere, prezio horiek izango dira indarrean egongo direnak kontratuak dirauen bitartean. Lizitatuzaileak banakako preziorik aurkezten ez badu, Administrazioarenak oinarritzat hartzen dituela ulertuko da, baina lizitatuzailearen prezio-proposamenean jasotako beherako portzentajea kenduta.

4. FINANTZIAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan. **5. ORDAINTZEKO MODUA**

Obra burutuak aldizka ordainduko dira, egiaztagiriak egindakoan. Obren zuzendariak egingo ditu egiaztagiri horiek.

6. PREZIOAK BERRIKUSTEA



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Kontratu honetan ez dagokio, espedientean jasotakoaren arabera, prezioak berrikustea.

7. BERMEAK

Kontratuaren esleipenduna, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea eman beharko du. Berme hori kontratuaren esleipen zenbatekoaren % 5koa izango da, BEZa kenduta.

Berme hori jartzeko epea egutegiko 10 egunekoa izango da, 22. baldintzan aipatutako eskakizuna jasotzen duen egunetik kontatzen hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 96. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke. Baldintza hori ez bada betetzen lizitatzailari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Udalak ez du esleipena bere alde egingo.

Berme-epa amaitzen denean, bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 102. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo da. Lehiaketan parte hartu ahal izateko, lizitatzailari kontratuaren aurrekontuaren ehuneko 3ari dagokion bermea ipintzeko eskaera egingo zaio (BEZa kanpo), eta aipatutako 96. artikuluan zehazten den edozein bidetatik aurkez daiteke. Berme horrek eskaintzari eutsiko dio kontratua esleitzen den bitartean.


8. KONTRATUA BETETZEA

Kontratu hau burutu ahal izateko, gizarte edo ingurumen alorreko baldintza berezi hauek bete beharko dira derrigorrez:

8.1.- LANDARE LURREZKO MATERIALAK

EZAUGARRI TEKNIKOAK

Inoiz ez da erabiliko espezie inbaditzaileak zeuden tokietatik datorren landare-lurrik, errizoma, hazi edota bestelako propaguluen bitartez zabaldutako edo kutsatu daitezkeenak eta hori seihesteko. Egin daiteke Obra Zuzendaritzak horrela onartzen badu, beharrezko neurriak hartuz.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

8.2.- OBRAREN EXEKUZIOA

8.2.1 LURRA BELAR-SASTRAKEZ GARBITZEA

HEDADURA

Obraren unitatearen barruan sartzen da landare lurraren geruza garbitu eta kendu aurretik, jarduketa eremuan dauden espezie inbaditzaile guztiak kentzea.

8.2.2 LANDARE LURRA ERAMAN ETA ZABALTZEA

OBREN EXEKUZIOA

Landare lurren behin-behineko metaketa egitea aurreikusten bada, metaketa landare inbaditzaile gabe edukitzea beharrezkoa da. Landare inbaditzaile azaltzen bada, lehenbailehen kendu beharko da, hazi edo landare berriak sortzeko aukera eman gabe.

8.3.-NEURRI ZUZENTZAILEAK

8.3.1 LOREZAINZA PROIEKTUAK

ESPEZIEN AUKERAKETA


Ezin da landare inbaditzaileen espezierik erabili. Inbaditzaileak diren espezieak ezagutzeko begiratu EAEko Flora aloktono inbaditzailearen diagnostia.

8.3.2 OBRAK BERRIRO LANDAREZTATZEKO ETA INGURUMEN ALDETIK BERRESKURATZEKO PROIEKTUAK

Ukituak izan diren eremuetan lehendik zeuden landare espezie autoktonoekin berrituko da landare-estaldura, haziak ereinez edo landatuz.

Landare inbaditzaileen espezien kokapena adierazten duen plano bat erantsiko da. Berreskuratzeko eta berriro landareztatzeako proiektuak landare inbaditzaileen zabalpena eta inbasioa saihesteko aurreikusi diren neurriak zehaztu beharko ditu kontuan izanda herbiziden erabilera maila handienera mugatu behar dela.

Berriro landareztatzeako lanetan landare lurrean zabaltzeko mozketak, kimaketak edo sastrakak kentzearen lanetatik eratorritako landare hondakinak berrerabili nahi badira, ezingo dira espezie aloktono inbaditzaileetatik datozenak erabili.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

8.3.3 INGURUMENA ZAINTEKO

8.3.3.1 OBRA FASEA

Ingurumena Zaintzeko Programan jarduketa eremuan espezie aloktono inbaditzaileak kontrolatzeko beharrezkoak diren neurriak sartu beharko dira.

8.3.3.2 OBRA BURUTZEKO FASEA

Berriro landareztatzeko proiektua amaitutakoan, berme epean zehar eta hurrengo urteetan zehar berme epea amaitu edo obra behin betiko ematerakoan jarraipen edo kontrol-lana egin beharko zaio, zin garapen izan duen jakiteko eta espezie aloktonoen zabalpen arriskua txikitzeko.

Baldintza horiek kontraturako funtsezko betebeharrak dira, eta beraz, SPKLTBaren 118.2 artikulua xedatzen duenaren arabera, betebeharrak ez betetzeak kontratua etetea ekar dezake berarekin, 223.f) artikuluan adierazi den moduan.

Zuinketa-akta izenpetzearekin batera hasiko da obra kontratua betetzea, eta hori 3 eguneko epean egingo da, kontratua sinatu den egunetik kontatzen hasita.


Kontratua kontratistaren gain eta kontura burutuko da, eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan galera, matxura edo kalteak izaten baditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 231. artikuluan adierazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Horiek gorabehera, obrak egiterakoan honako hauek bete beharko dira: a) agiri honetan ezarritako baldintzak; b) baldintza-agiriarekin batera dauden xehetasun teknikoak, eta c) Sektore Publikoaren Kontratu Legearen Testu Bateratua eta urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Araudi Orokorrean ezarritakoak. Bereziki, kontratuko obrak Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko dira, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren aginduekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

9. KONTRATISTAREN LAN EGINKIZUNAK

Kontratu honen xede diren obretan kontratatutako langileei dagokienez, kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienez arloan indarrean dauden legeko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

10. HIZKUNTZA KLAUSULAK

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAeko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 18. artikuluan administrazioetako normalizazio planek jaso beharko dituzten gutxieneko edukiak zehazten ditu eta horien artean ondorengo agertzen da: "18 d) Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezten." Hori dela eta, administrazioaren eta honen erakunde autonomoen kontratazioetarako pleguetan puntu berezi bat jasoko da eta bertan adieraziko da, kasuan kasuko kontratuari apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.d) atalean ezarritako neurriak dagozkion ala ez.

Baldintza plegu honetan ezartzen diren hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan. Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuek ezagunak edo ulergarriak direnean. Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin alde zuzenetik adostuta.


Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntz araudiaren arabera jokatu du, kontratuaren xede diren jardura guztietan; eta beraz, enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak administrazioaren lan hizkuntzaren arabera izango dira.

Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren jarraipena:

Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen administrazio atalak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko (SPKLTB) 52 eta 222 artikuluek jarraiki:

- Kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza-baldintzak behar bezala betetzen diren jarraipena egin, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

- Ikuskaritza kontratu bukaeran ez ezik, modu jarraian ere egingo du kontratu-arduradunak, berriaz prestatutako jarraipen euskarriak erabilia, sor daitezkeen hutsegiteak zuzendu ahal izateko.

11. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Kontratista izango da, lanak egin bitartean, edozein pertsonari, jabetzari edo zerbitzuri (publikoa nahiz pribatua) sortutako kalte eta galera guztien erantzulea, bere kargura dituen langileen egintzen, hutsegiteen edo axolagabekeriaren ondorioz sortzen badira, edo kalte nahiz galera horien arrazoa obren antolakuntza, babes nahiz seinaleztapen urria bada. Horretarako erantzukizun zibileko poliza izenpetu beharko du 600.000 euroko gutxieneko kopuruarekin.

12. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du SPKLTBaren 107 artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada beti ere, lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez baditu.

Lehen aipatutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

Aipatu Legearen 234.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratua aldatzerakoan obra-unitate berriak sartu behar badira kontratuan, unitate horien prezioak Administrazioak zehaztuko ditu. Kontratatistak ez baditu prezio horiek onartzen, unitate berri horiek beste enpresa batekin prezio beretan kontratatzeke edo zuzenean burutzeko eskubidea dauka kontratazio-organoak.


13. OBRAK HARTZEA ETA BERME EPEA

Obrak amaitu eta, gehienez, hilabete pasa baino lehen, obrak esleitzailerearen esku utziko dira eta egintza horren akta egingo da.

Horiek jasotzeko kontratatistak behin betiko egoeraren "as built" eta topografia planoak aurkeztu beharko ditu ETRS89 koordenatuetan Udalak zehazten duen eran.

Gainera, urtebeteko epea egongo da harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Nolanahi ere, kontratatistak kontratua bete ez eta eraikuntzak ezkutuko akatsak izateagatik obra berme-epetik kanpo hondatzen bada, kontratatistak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du hamabost urtean, obrak esleitzailerearen esku utzi zirenetik kontaktzen hasita. Epe hori amaitutakoan, bestelako kalte edo galerarik ez bada izan, kontratatistaren erantzukizuna amaitutzat joko da.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A. KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK EZ BETETZEA

Kontratatik, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Lanak garaiz burutu ez izanagatiko zigorra kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiplo bat izatera iristen den bakoitzean Kontratazio Organoak kontratua eteteko eskumena du, edo kontratuaren jarraipena adosteko, zigor berriak ezarrita.

B. PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA EZ BETETZEA

Kontratatik, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

C. KONTRATUA BURUTZEAN AKATSAK EGITEA

Prestazioa burutzean akatsak izan badira, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren %10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

D. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK EZ BETETZEA

Lanak burutzean 8. klausulan adierazitako gizar-tearen edo ingurumenaren arloko baldintza bereziak betetzen ez badira, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.


E. KAUDEIMEN KONPROMISOAK EZ BETETZEA

Kontratatik bere eskaintzan adierazitako bitarteko materialak eta langileak erabiltzeko betebeharra ez badu betetzen, 21. klausulan adierazi bezala, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

15.- KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 223 eta 237. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

16.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUDUNTZAK



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Administrazioari dagokio kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

17.- ESLEITZEKO PROZEDURA.

Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da.

Kontratuaren esleipenaren oinarri gisa erabiliko diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta esleitzen zaien haztapena honako hauek dira:

1) Prezioa: 50 puntu. Baloraziorako aplikatuko den formula ondorengo izango da:

50 puntu eskaintza merkeenari. Lizitazio oinarrian eta eskaintza merkeenean sartutako gainerako eskaintzen artean, ondorengo formulazioa:

$$P = 50 - \% \Delta$$

P honakoa izango da: Baloratutako puntuak.

$\% \Delta$ honakoa izango da: Aztertutako eskaintzak eskaintza merkeenarekik duen goranzko proportziorako aldea ehunekoetan, lehenengo dezimalean borobilduta.

$$\Delta \% = \frac{\text{aztertutako eskaintza} - \text{eskaintza merkeena}}{\text{Eskaintza merkeena}} \times 100$$


2) Obrak burutzeko epea: 8 puntu. Epea moztea proposatzen den aste bakoitzeko 2 puntu aplikatuko dira, aste zatikiak behetik borobilduz. Adibidez, astebete eta bi eguneko epean laburtzen bada astebete bezala baloratuko da.

3) Ezarritako berme-epea handitzea: 8 puntu. Honela baloratuko da:

- Urtebeteko berme epea: 0 puntu
- Bi urteko berme epea: 2 puntu
- Hiru urteko berme epea: 4 puntu
- Lau urteko berme epea: 6 puntu
- Bost urte edo gehiagoko berme epea: 8 puntu.

4) Langabezia egoeran dauden eta Ordizian erroldatuta dauden pertsonen kontratazioa. Kontratazio bakoitza 2 punturekin baloratuko da eta gehienez 8 puntu emango dira.

Lan programa: 26 puntu. Proiektuaren azterketa baloratuko da bereziki, obra martxan jartzea ondorengoak kontuan izanik: afekzioak, faseak eta antolakuntza, komunikazioa, ibilgailuen eta oinezkoen zirkulaziorako proposatutako soluzioak obrek irauten duten bitartean, lursailetakoa



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

sarbideak, hesiak, seinaleak etab... ziurtagiriak, baliabide teknikoak eta giza baliabideak taldeen zehaztapenekin, berezko baliabideak, azpikontratazioa, hornitzaileak eta abar.

Eskaintzak neurrigabeak edo anormalak direla eta proposamenak ezin litezkeela bete uste izateko kontuan hartuko diren mugak, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 85. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako parametro objektiboek zehaztuko dizkigute, beti ere aurkeztu diren eskaintza onargarrien multzoarekin alderatuta.

18.- KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia honako kide hauek osatuko dute:

- BATZORDEBURUA: Udaleko Alkatea edo eskuordetzan hartutako zinegotzia.
- Batzordekideak
- 1) UDAL-ARKITEKTOA
- 2) Udaleko Zerbitzuen Arduradun den Aparejadorea.
- 3) Administrazio Orokorreko Teknikaria
- 4) Udaleko Kontuhartzailea
- IDAZKARIA: Udalekoa edo eskuordetzan hartu duen funtzionarioa.

19.- KONTRATATZEKO GAITASUNA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak 21.e) baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute.


Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariak, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

20.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin doan dokumentazio teknikoa ere, Administrazio honetako Idazkaritzan 8,30etik 13,30era aztertu ahal izango da, egun baliodunetan, lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta proposamenak aurkezteke epea bukatu arte.

Horiek adierazitako toki eta ordutegi berean aurkeztuko dira, 26 egun naturaleko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Gainera, eskaintza hau kontratazio organoaren kontratzaile profilean argitaratuko da, eta honako atari informatiko edo webgunean ere eskuratu ahal izango da:

www.ordizia.org

Gune berean, baldintza agiriak eta dokumentazio osagarria ere eskuratu ahal izango da.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkezten diren proposamenak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen bidali. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lizitatzailerak, proposamena bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztagiria bidali beharko dio kontratazio-organismoari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Posta elektronikoz bidatzen badu, baliozkoa izan dadin, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorraren 80.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

21. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitatzailerak hiru kartazal (A, B eta C) aurkeztuko dituzte itxita. Kartazal bakoitzean honako hau idatziko da: N-I (Ordiziako hego lotunea) ETA GI-4491 ERREPIDEAK LOTZEN DUEN AGIRREBIDEA HOBETZEKO 1. PROIEKTUA ALDATUA OBRAK PROZEDURA IREKI BIDEZ EGINGO DEN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”.

Kartazal bakoitzean enpresaren izena eta proposamen izenpetzailearen izen-abizenak jarriko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Bi kartazalek ere izenpetuta egon beharko dute.

“A” kartazalaren azpititua hau izango da: “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA”. Hona hemen “A” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:


a) Parte-hartzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea aurkeztuko da eta erakunde honek askietsiko du kartazal horretan aurkeztutako agiriaren sailkapen-prozesuan.

b) Lizitatzailera pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lizitatzailerearen jardura zuzentzen duten arauak.

Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie.

Bestelako enpresari atzeritarren jarduteko gaitasuna Espainiak dagokion Estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo enpresaren egoitza hartzen duen lurralde-eremuko Kontsul Bulegoaren txostenaren bidez frogatuko da.

c) Lizitatzailerak erantzukizunpeko berriazko aitortpena aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetatik bat



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

bera ere ez duela agertzeko. Aitorpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiriak aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.

d) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lizitatzailleak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan baxerik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

e) Kontratatutako ondorengo kategoriko, taldeko eta azpitaldeko obrak kontratatutako gaitasuna ematen dion sailkapena duela egiaztatzen duen agiria.

g taldea
4 azpitaldea
e kategoria

Kaudimena frogatzeko, gainera, lizitatzailleek haien eskaintzetan zehaztutako baliabide materialekin eta giza baliabideekin osatuko da. Hori kontratuari atxikiko zaio derrigorrezko izaeraz eta, beraz, SPKLTBaren 64.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hori betetzen ez bada kontratua bertan behera uzteko arrazoi izango da 223.f) artikuluan adierazi bezala.

Proposamenetan, kontratua burutuko duten langileen izen-abizenak eta horien lanbide-prestakuntza adierazi beharko dira.


f) Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute Aldi Baterako Enpresa-batasuna eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero, AEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiak. Bestaldekik, aldi baterako enpresa-batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenetan, kide bakoitzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

g) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lizitatzailleari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

h) Prozedura horren ondorioz sortzen diren jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa, SPKLTBaren 151.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

i) Behin-behineko bermearen ordainagiria.

Goiko a), b) eta e) puntuetan adierazitako baldintzak ziurtatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratatutako eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, Estatuko Lizitatzaillearen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri batekin, SPKLTBaren 84. artikulua xedatutakoaren arabera.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Aipatu ziurtapenarekin batera, adierazitako egoerak aldatu ez direla ziurtatzen duen lizitatzaillearen ardura-adierazpena ere gehitu beharko da.

“B” kartazalaren azpigitulua hau izango da: “BALIO JUDIZIO BATEN MENPE DAUDEN BALIOESPEN IRIZPIDEAK”. Bertan agiri honen 17. klausulan adierazitako balio-judizioen araberrako balioespen-irizpideei erreferentzia egiten dieten agiriak jasoko dira.

“C” kartazalaren azpigitulua hau izango da; “DIRU-PROPOSAMENA ETA AUTOMATIKOKI BALIOESTEKO IRIZPIDEA”. Hona hemen “C” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- a) I. eranskinean atxikitako ereduaren araberrako diru-proposamena.
- b) Baldintza agiri honen 17. klausulan adierazitako automatikoki antzemateko irizpideei erreferentzia egiten dieten agiriak.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu. Aipatu agiriak fotokopia hutsean ere aurkez daitezke baina, kasu horretan, lehen sailkatuak fotokopia horiek benetakoak direla erakutsiko du jatorrizkoak emanez.

22.

23. AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKI ETA PROPOSATZEA ETA ENPRESAK AUKERATZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako lan hauek burutuko dira:

1º. “A” KARTAZALA IREKI ETA BERTAN DAUDEN AGIRIAK PROZESATZEA.


Mahaiak "A" kartazalean dauden agiriak sailkatuko ditu. Ildo horretan, lehiatzaileei beren gaitasun eta kaudimenari buruzko argibide eta agiri gehiago eskatu ahal izango dizkie, eta lehiatzaileek egutegiko bost eguneko epean eman beharko dizkiote, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorren 22. artikuluan xedatuta dagoenez. Mahaiak interesdunei ahoz eskatu behar dizkie argibide eta agiri osagarri horiek, eta gainera eskaera idatzia jarri behar du kontratazio-organoaren iragarki oholean. Era berean, lizitatzailleek aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akatsak agertzen badira, Mahaiak ahoz eta iragarki bidez emango die horren berri lizitatzaillei, eta hiru egun balioduneko epea jarriko die, aipatutako Araudiko 81. artikuluan, akatsak zuzen ditzaten.

2º. ENPRESAK AUKERATZEA

Behin agiriak sailkaturik, eta akats eta hutsuneak zuzendu eta gero, halakorik badago, baldintza-agiri honen 21. baldintzako e) letran azaltzen diren irizpideak zein enpresak betetzen dituzten zehaztuko du Mahaiak, eta berariaz adieraziko du zein enpresa onartu dituen lehiaketarako, zein baztertu dituen eta zergatik baztertu dituen.

3º. “B” KARTAZALA PUBLIKOKI IREKITZEA BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERAKO IRIZPIDEEN BAITAN.

"B" kartazalean aurkeztutako dokumentazioa, balio-judizio baten araberrako irizpideen baitan, publikoki irekiko da alde z aurretik lizitatzaillei jakinaraziko zaien egun batean.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

4º. "C" KARTAZALA PUBLIKOKI IREKITZEA BALORAZIO AUTOMATIKOKO IRIZPIDEEN BAITAN.

"B" kartazalean zegoen dokumentazioa ireki eta balioetsi ostean, "C" kartazala irekiko da publikoki kontratatzailearen profilean adierazitako egun eta orduan. Ekitaldi horretan, eskaintza bakoitzean balio-judizio baten menpeko irizpideei esleitutako balorazioa jakinaraziko da.

5º. ESKAINTZAK SAILKATZEA

Irizpide guztiak balioesten direnean, Mahaiak aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu garrantziaren arabera eta esleipen-proposamena aurkeztuko dio esleipena egin behar duen kontratazio-organoari.

SPKLTBaren 152. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskaintza anormaltzat edo neurrigabetzat jotzen denean lizitatzaleari (edo lizitatzaleei, hala dagokienean) entzungo zaio, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa egin beharko du.

Kasu honetan, lizitatzaleak emandako arrazoiak eta txostenak aintzat hartuta, kontratazio-organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzaleari egingo dio esleipena, beti ere Administrazioaren lanak egiteko gaitasuna duela.

Aitzitik, kontratazio-organoak eskaintza ezin dela bete uste badu balio anormal edo neurrigabeak dituelako, sailkapenetik baztertuko da. Kalkulua berriro egingo da lehenengo sailkapeneko balio anormal edo neurri gabeko eskaintzak kenduta. Prozedura hau egiten jarraituko da balio anormal edo neurri gabeko eskaintzarik ez dagoen arte. Behin eta prozedura adierazitakoaren modura egiten denean, ekonomikoki proposamenik onuragarrienaren aldeko esleipena egingo du, proposamenak sailkatu diren ordenari jarraiki.

Emandako pauso guztien berri emango da espedientean, derrigorrean idatziko diren aktetan jasoaz.


6º. ERREKERIMENDUA LEHEN SAILKATUARI

Aurreko pausoak eman ostean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita hamar egun balioduneko epean, lehen sailkatuari honako ekintzak egin ditzala eskatuko zaio

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzen duten agiriak aurkeztea edo kontratazio-organoari egoera hori horrela dela ziurtatzeko modu zuzena lortzeko baimena ematea. Ez da beharrezkoa izango agiri horiek berriz ere aurkeztea proposamenarekin batera aurkeztu baditu.

b) Kontratua burutzeko beharrezkoak dituen bitartekoak eskuratzeko konpromisoa betetzen duela ziurtatzeko agiria aurkeztea, baldintza-agiri honen 21. klausulako e) letraren arabera.

c) Behin betiko bermea eratu denaren egiaztapena aurkeztea.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

d) Jatorrizko agiriak aurkeztea, proposamena osatzen duten kartazaletan fotokopia hutsak aurkeztu badira.

e) Sinatutako erantzukizun zibileko poliza aurkeztea, plegu honetako gutxieneko eskakizunekin.

Errekerimendua ez bada aipatutako epean behar bezala betetzen, lizitatuzaileak eskaintza baztertu duela ulertuko da eta, kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatuzaileari, eskaintzen sailkapenaren arabera.

24. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Kontratazio-organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatuzaileari egingo dio esleipena. Esleipena hamabost eguneko epean egingo da proposamenak irekitzen diren egunaren biharamonetik kontatzen hasita. Horren berri lizitatuzaile guztiei emango zaie eta Erakunde honen kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-agiri gisa formalizatuz burutuko da eta aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

Esleipenaren jakinarazpenean adierazitako epean, zeina ezingo den 15 egun baliodun baino gehiagokoa izan, esleipendunak honakoak egingo ditu:


a) Administrazio honen bulegoetara etortzea, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

b) Aldizkari ofizialeko publizitate gastuak ordaintzea.

Azkenik, formalizazio-dokumentuan jasotzen den epearen barruan (sinatu eta gehienez hilabetera), esleipenduna Administrazio honetara etorriko da proiektuaren zuinketa egiaztatu eta dagokion akta sinatzera. Une horretatik aurrera, kontratuaren exekuzio-epea kontatzen hasiko da.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

25. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuak administrazio-izaera izango du eta baldintza-agiri honen eta atxikitako gainerako agiri teknikoen arabera burutuko da. Bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, hauetan xedatutako arauak beteko dira: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak onartzen duen, azaroaren 14ko, 3/2011 Errege Dekretu Lagislatiboa; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, 3/2011 EDLaren aurka ez doan arauetan; eta, hala badagokio, Herri Administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerako arauak.

Administrazio Baldintza Zehatzen Agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

26. DATU PERTSONALEN BABESA


Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLTBaren Hogeita Seigarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

Horretarako, esleipendunak II. eranskinean azaltzen den agiria sinatu beharko du.

27. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu eta organoak erabakitakoek administrazioaren bideari amaiera emango diote, hala badagokio, SPKLTBaren 40. artikulutik 49. artikulura xedatutakoaren arabera, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean araututako edozein artikuluren arabera, kontratazioaren alorrean errekurtsio berezia jartzeko aukeraren aurka egin gabe.

.....n, 20.....koaren(e)(a)n.



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

I. ERANSKINA. LIZITATZAILEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMEN EKONOMIKOEN KARRAITU BEHARREKO EREDUA

Lizitatzaillearen datuak: Izen-abizenak Helbidea
..... Posta kodea, NAN zenbakia
....., Telefonoa Helbide elektronikoa.....,
zuzenbideko eta jarduteko gaitasun osoarekin. Ordezkariren datuak (ordezkaririk egonez gero):
Izen-abizenak Helbidea
..... Posta kodea, Telefonoa
..... NAN edo IFK zenbakia (persona fisiko edo juridikoa denaren arabera)
....., N-I (Ordiziako hego lotunea) ETA GI-4491 ERREPIDEAK LOTZEN DUEN
AGIRREBIDEA HOBETZEKO 1. PROIEKTUA ALDATUA OBRAK kontratazeko asmoz
Ordiziako Udalak dei egindako prozedura ireki bidezko kontratazioan parte hartzeko gonbita jaso
dudala, hona hemen nire ADIERAZPENA:


1) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala:
€, gehi €, azken kopuru hori BEZaren %ari dagokiona. Epea hau izango
da: Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko
edozein tasa edo ariel, bai eta kontratistaren industri onura ere.

2.) Proiektua ezagutzen dut bere edukiarekin, bai eta kontratu hau arautu behar duten
administrazio-baldintza zehatzen agiria eta gainontzeko agiriak ere. Horiek horrela, neure gain
hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

3. Ordezkatzen dudana enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen
dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

.....n, 20.....koaren(e)(a)n.

Sinadura



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

II ERANSKINA

..... bere burua behartzen du eskuragarri izan ditzakeen datu pertsonalekiko sekretu profesionala gordetzera. Betebehar horrek iraun egingo du baita Ordiziako Udalarekin bere harremana eten eta gero ere, eta, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/99 Lege Organikoak ezartzen dituen baldintzak betez, datu pertsonalen segurtasuna eta osotasuna bermatzeko, eta horiek aldatzea, galtzea, tratatzea edo horietarako sarbidea izatea saihesteko beharrezkoak diren neurri tekniko eta eraketa-neurriak ezarriko ditu.

Modu berean, datuak soil-soilik kontratatu den zerbitzua betetzeko erabiliko dira, izanik, emandako zerbitzuaren arabera, informazio horri erabilera okerra ematearen erantzule nagusia.

Kontratua bukatuta, kontratatutako zerbitzua dela-eta bere esku izan dituen informazio eta dokumentu guztiak itzuliko ditu.

..... izango da klausula honetan ezarritakoa ez betetzearen ondorioz sor daitezkeen kalte eta galeren erantzulea, baita Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ezar lezakeen edozein zigorren zenbatekoa ordaintzearen erantzulea ere.